

**2017ko URRIAREN 10eko OSOKO**  
**BILKURA ARRUNTAREN LABURPENA**

**1.- Aurreko bilkurako akta irakurri eta onestea.**

2017/08/03ko akta onetsi da.

**2.- Ultzamako udalaren eta AMETZA kultur elkartearen arteko hitzarmena esan-erran irratia eta pulunpe aldizkaria euskarazko tokiko hedabideak finantzatzeko.**

Alkateak gaia azaldu du eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu du. Elkarte honek hasiera batean, bere finantzaketan laguntzeko hitzarmen eredu bat proposatu zuen eta hainbat elkarrizketaren ondoren eta txosten juridikoak ikusita, azkenik, beste hitzarmen eredu bat aurkeztu da (eskualdeko beste udaletan bezala). Eredu berri honen arabera harpidetutako udalak urtero erabakiko dute zein proiektu babestu eta finantziatu behar dituen, eta honetaz gain, artekaritza-kontseiluaren barruan, udalen eta Ametza elkartearen kide kopuru bera egongo da, lehendakaria udalek izendatuko dute, lehen ez bezala, alderantziz baitzen.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta eguneko gai zerrendako puntu honi dagokionez bere taldearen aurkako botoa adierazi du, honako arrazoiak argudiatuz:

- Ametza elkarte, elkarte pribatu dela uste dute.
- Ametza elkarte udaletik ateratzen diren laguntza deialdietara joan beharko litzatekeela uste dute, eskualdeko gainerako entitate pribatu eta elkarteak egiten duten bezala. Beraz, aurrekontu bat aurkeztu beharko lukete diru sarrerak eta gastuak zehazki azalduz, eta bereziki ea non sortzen den duten defizita. Hori dela eta amaitzeko esan du bere irizpidearen arabera ezin dela elkarte batekin hitzarmen bat sinatu honen datu ekonomikoak falta badira.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea eta Aranguren.
- Aurkako botoak: Erviti, Oyarzun eta Perez Arregui. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

LEHENA.- Esan-erran irratia eta pulunpe aldizkaria euskarazko tokiko hedabideak finantzatzeko Ultzamako udalaren eta AMETZA kultur

elkartearen arteko hitzarmena onartzea. Honen helburua euskararen sustapen jarduera honen finantzaketa ziurtatzea da eta horrela aipaturiko bertako komunikabide hauen (eta sor litezkeen beste batzuei) bidez haran hauetan euskararen normalizazioan laguntzea euskararen erabilera ziurtatuz edo bermatuz, eta espresuki Aranzazu Martinez Urionabarrenechea Ultzamako alkatea entitate honen izenean eta errepresentante gisa sinatzeko baimentzea.

BIGARREN.- Aurrekoarekin bat, beraz, eskatzailea den "AMETZA kultur taldearen" aldeko diru laguntza —honen kalkulua urtero zehaztuko da aipaturiko hitzarmenaren iraunaldian— onartzea entitate honen bertako komunikabideen kudeaketa-jarduerak eta argitalpenak sortzen dituen gastuetako batzuk ordaintzera zuzendutakoa: "ESAN ERRAN IRRATIA", "PULUNPE ALDIZKARIA" eta beste batzuk.

### **3. Eltzaburuko harrobiaren kanona likidatzea, 2016ko irailaren 30etik 2017ko irailaren 29rako aldiari dagokiona.**

Alkateak gaia azaldu du eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu du.

Aho batez onetsi da.

LEHENA.- 2016ko irailaren 30etik 2017ko irailaren 29rako aldiari dagokion Eltzaburuko harrobiaren kanonaren likidazioa onartzea.

### **4. 2018. urteko ekitaldirako lan-egutegia onestea.**

Alkateak gaia azaldu du eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu du.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta aipatu du ea ez litzatekeen hobea izango herriko jai eguna San Anton izatea, duela urte batzuk egiten zen moduan, eta alkateak erantzun dio aipaturiko eguna, (emakume langilearen eguna) plantillarekin adostu zela.

Aho batez onetsi da.

**5. Behin betiko onestea Elordi industrialdean dagoen eta katastroko 188-12 lurzatiari dagozkion 258,00 m<sup>2</sup>ko lurra, Ultzamako Udalaren jabetzakoa, soberako lurzatiaren deklarazioa ondoren saltzeko balorazio ofizialaren arabeko prezioan, harekin muga egiten duen lurrari eransteko (Talleres Elordi SL enpresako nabea), IGNACIO ESQUISABEL HERNANDEZ eskatzailearen jabetzakoa baita.**

Alkateak gaia azaldu du eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu du.

Aho batez onetsi da.

**6. Hasiara batez onestea abeltzaintzako mindan oinarriturik argindarra ekoizteko Iraizozko (Ultzama) 12. poligonoko 159. lurzatiko A azpilurzatian kokaturiko plantaren eta Iraizotz, Gorrontz-Olano, Suarbe, Auza eta Orokietako kontzejuetan dauden minda digerituak biltegiatzeko lau hobiren administrazio kontzesioaren kontratuarekin loturiko AKTIBOEN balorazioa eta geroko Bioenergia Ulzama SA enpresaren aldeko likidazioa.**

Alkateak gaia azaldu du, eta balioespen txostena jaso eta Udaleko aholkularioekin kontsultatu ondoren, gaia astiroago begiratzea aholkatu dute eta txostenaren edukia erreparatzea aldaketaren bat egin behar bada, hori dela eta gaia mahai gainean uztea erabaki da hurrengo osoko bilkuran tratatzeko eta, hala badagokio, onartzeko.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta gai honi buruz komentatu du bere Udal taldeko kideei baliospena egin duen teknikariarekin biltzea eta egotea gustatuko litzaiekela, txostenean dauden gauza batzuk ez baitituzte argi, eta aipaturiko bilera eskatu diote alkatetzari.

Martinez Urionabarrenechea Alkateak erantzun die teknikoak lruñera etortzen denean jakinaraziko dietela.

**7. Ultzamako Alkatetzak 2017ko irailaren 4an emandako 178/2017 ebazpena, "NAFARROAKO FORUZAINGOARENDAKO PLAN ZUZENTZAILEARI BURUZKO MOZIOARI" buruz.**

Alkateak gaia azaldu du eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu du.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta eguneko gai zerrendako puntu honi dagokionez bere taldearen aurkako botoa adierazi du, argudiatuz beraien aldetik uste dutela oraindik osoko bilkuratik pasatu ez den mozio bat orain berrestea legez ez dela posiblea, eta beraz ez dute ulertzen gai honi ematen ari zaion ikuspegia, Udalaren osoko bilkura baita mozio bat onartzeko organo eskudun bakarra.

Udaleko idazkaria kontu honi azalpen bat ematen saiatu da eta adierazi du orain berretsi behar den adierazpena mozio bezala izendatu

den arren ez da horrela, mozio bat bi udal taldeetako batek proposatzen duenean, osoko bilkuran galde eskeen atala baino lehen sartzen den gai konkretu bat baita hain zuzen ere, eta aurrez hau tratatzeko urgentzia onartzen da... hau horrelako kasua ez izanik, kontu semantiko bat besterik ez da izan: mozio deitu zaio hori ez den bati...

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea eta Aranguren.

- Abstentzioak: Erviti, Oyarzun eta Perez Arregui. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

LEHENA.- Nafarroako foruzaingoa gure komunitatearen polizia erreferentea izan behar duela kontsideratzea benetako polizia integral bat osatuz segurtasun publikoko konpetentziei eraginkortasunarekin aurre eginez.

BIGARREN.- Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlemtuari tramitatzen ari den Polizia foralaren plan gidarian aurreikusitako hirugarren aukeraren apustu garbia egin dezala eskatzea, Polizia Modelo Esklusiboa deiturikoa, Estatuaren aldetik transferigarri diren trafiko eta bide-segurtasun, herritarren eta ingurumeneko segurtasuneko konpetentziak kontenplazten dituena, estatuarekin behar diren negoziazioari ekinez behar diren polizia plantillak garatu daitezzen, garapen eta hedatze hori ematen den neurrian estatuko segurtasun indarrak paraleloki funtzio eta konpetentzia horiek emateari utz diezaioten.

## **8. Diru-laguntza ematea "Nafarroa Oinez, 2017" edizioaren antolatzaileei.**

Alkateak gaia azaldu du.

Aho batez erabaki da.

LEHENA.- 600,00 euroko gastua baimentzea "Nafarroa Oinezaren antolaketarako ekarpena" kontzeptuarekin eta ordainketari ekitea interesatu/eskatzaileari.

## **9. Alkatetzaren informazioak.**

Alkatetzaren aldetik honako informazio hauek eman dira:

Gobernu taldearen aldetik 2018ko aurrekontuak egiten ari dira jada eta horretarako Agrupacion Ultzamako Udal taldeko kideak abisatu ditu joan daitezela beraien aldetik zirriborro bat prestatzen baita ere. Behin zirriborroa dutenean pasatuko dietela, beraien ideia aurrekontu parte-hartzaile batzuk izatea baita eta hori dela eta denborarekin jakinaraztenzaie.

Alkatetzatik eta gainerako korporazioko kideengandik jasota utzi nahi da Ultzamako honako entitate edo pertsona hauen lana eta meritua, ondorengo hauek izanik:

Zenozko Peio Etxeberria Vitorini pilotariari, bere kirolari ibilbideagatik eta arrakastagatik Aspe Pilota enpresa profesionalarekin debutatu berri baitu.

Ultzamako Benta jatetxeari ostalaritza-establezimendu gisa izan duen ibilbide onagatik, eta bereziki "Michelin eta Mahou/San Miguel" entitateak eman dieten "Big Gourmand" sariagatik, bere kalitateagatik eta prezioagatik nabarmendu diren Nafarroako, EAEko eta Kantabriako jatetxei kalitate sinbolo gisa ematen dieten saria.

Korporazioko gainerako kideak errekonozimendu hauekin bat egin dute.

GOSHUA SA enpresarena den lokal batean dauden Biogas plantako motoreak.

Aurtengo irailean aipaturiko enpresak, lehenbailehen hauek jentzea eskatu zuen (hiru motore dira eta elektrizitate elementu batzuk daude baita ere, transformadoreak, eta abar). Udaletik lehenbailehen egingo zela erantzun zitzairen baina aurretik hauek saltzen saiatu behar zirela eta hori dela eta abendura arteko epea eskatu zitzairen. Gauzak horrela, Udaletik elementu hauek desafektatzeko espediente bat hasi da (Biogas plantari lotuta zeudenez ondasun publikotzat hartzen dira), Osoko Bilkurak azaroan onartu behar izango duen espedientea. Aldi berean hiru motorren prezioaren balioespen bat egin da eta (honi buruz txosten tekniko bat dago), jada hauen salmenta enkante publikoan iragarrita dago ohiko baliabideetan (web orria, posta elektronikoa...). Enkantearen data azaroaren erdialderako aurreikusitako da, desafektatze espedientea jada bukatuta egongo den unea.

## **10. Exekutiboaren kontrola. Aintzat hartzea Alkatetzaren 2017ko 156.ebazpenetik 190.era.**

Kontuan hartu dira goian aipaturiko Alkatetzaren ebazpenak.

## **11. Eskaerak eta Galderak.**

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Ertzi zinegotziak Nafarroako Gobernuaren 2017-2019 Toki Inbertsioen Plan deialdiaren laguntza eskaerei dagokienez Udaletik eta Ultzanuetako zerbitzu mankomunitatetik egin diren eskaeren emaitzen inguruan galdetu du.

EH Bildu Udal taldeko Picabea zingotziak honelaerantzun dio:

Ultzanuetatik eskatutako obrak: Plan zuzentzailea (Etulaingo eta Gorrizko obra) 2018rako bai eman behar digutela. Latsako biltegiaren obra 2018rako dago baita ere (Plan zuzentzailea baita ere). Lozeneko saneamendu obra (tokiko programazioa) ere 2018rako sartu dute.

Ultzamako udaletik eskatutako obrak: Aparkalekuko eta Lozeno argiteriaren obrak, eta udaletxeko eraikinean enpresetarako lokal egokitzapenekoak (guztiak tokian programatuak) ez dira onartu. Hau guztiarekin eta Ultzanuetak Lozeno saneamendua sartu behar duela ikusirik, Udalaren aldetik argiteri publikoaren hodiak sartzeko aprobetxatuko da.